

Transkripzioa

Kaixo, lagunok! Zer moduz gara? Bueno, ba, oraingoan bururatu zaigu interesgarria izango litzatekeela jakitea zeren falta sumatzen duzuen egunotan. Astebete inguru daramagu alarma-edo alerta-egoeran, etxean sartuta, konfinamenduan, bakartze egoeran, eta jakin nahiko genuke zeren hutsunea nabaritzen duzuen, bereziki, egunotan. Agian (bueno, agian ez), ziur senideren batekin, bereziki, gogoratzen ari zaretela. Bai, normala da. Adibidez, nik nire ama urrun samar daukat, eta ia etengabe daukat gogoan. Bueno, ba, partekatu zuen sentimendu hori, zuen sentsazio hori. Edota agian, senideren bat baino gehiago, lagunak dituzue gogoan eta lagunekin hartutako kafetxoak, egindako poteoak, barreak... Ba, hori ere kontatu guri, eta hutsune hori estaltzeko zer egiten duzuen ere esplikatuz, nahi izanez gero.

Beste batzuk, berriz, oso-oso kirolzaleak zarete, eta ziur gogoratzen zaretela zuen mendi-irteerekin, zuen korrika-saioekin edo lagunekin egindako saskibalo-partidatxoekin. Ba, hemen daukatzue zuen barrenak husteko aukera paregabea. Eta saskibaloiaz hitz egin duguz, eta agian saskibaloian jokatzeko ez zarete oso trebeak, baina bai baskoniazale amorratuak. Eta orain zer ari zarete egiten Buesa Arenara joan gabe? Bueno, ez Buesa Arenara, ez inora. Ba, kontatu nola askatzen duzuen zuen adrenalina. Denak balio digu, edo baita euskaltegia ere, klaro. Agian, euskaltegia bereziki faltan sumatzen duzue. Zuen ikaskide mutua edo isiltzen ez dena edo zuen irakasle jator hori, idazlanak, bakarrizketak... Zer duzue faltan euskaltegian?

Ba, esandakoa, hau da helburua. Kontatu zerekin gogoratzen zaretela bereziki orain, egin ezin duzuen zerbait, eta horretarako bidali bideo bat, edo audio bat edo testu idatzi bat. Bidali edo argitaratu hemen Argitalpenetan. Edo, bestela, bidali guri. Gure helbidea da: ikac1@ikaeuskaltegiak.eus. Dena txikiz: ikac1@ikaeuskaltegiak.eus

Berdin zaigu zer mailatan zauden edo zein den zure azpimaila edo talde-mota edo moduloa. Inportanteena hemen da zure berri izatea, pixka bat gure sentimenduak partekatzea eta, zergatik ez, tarte entretenigarri bat pasatzea

Horixe. Eskerrik asko. Besarkada haundi bat, eta jarraitu euskararekin! Animo!